ERREPORTAJEA · ANSOLATARRAK, 50 URTE AUTOEN NEGOZIOAN · GEHIGARRIA JUAN BARRENETXEARI ELKARRIZKETA · KULTURA OTSAILAK 2 ETA 4, ELGOIBAR SANTA ESKEAN

ELGOIBARKO ASTEKARIA · 2002ko otsailaren 1a/X. urtea/391. zkia

# BARREN

ASTEKARIA



# kale ala baserri, kopla kantari eutsiz ohitura zaharrari

"ESKATZEA LIBRE DA, EZ EMATE ERE BAI" ( Esaera zaharra )


URTE BERRIAREKIN BASARTE BERRITUA.
Inauteri menu berezia
18 €
BASARTE
JATETXEA
Egunero zabalik, afariak enkarguz.
Aste osoan karta eta degustazio menua.
Lanegunetan baita eguneko menua ere.
Menu egokituak prestatzeko eta enkargatzeko
deitu 943 74 34 26 telefonora
Alejandraren sukaldaritza berria
Basarte auzoa, 4- Tel./Faxa: 943 743 426


ZEZEN-13IDE
AUTO ESKOLA
San Frantzisko, 43 -1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
ordutegi berria
1 0:00etatik-1 2:30era
1 5:00etatik-20:30era
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 455 • 20600 EIBAR



## Zaborra

Zaborra, zarama, hondakinak... alde guztietatik kakaz inguratuta gaudela konturatu naiz, ez dago inora ihes egiterik. Kalean dagoena ikusten dugu, eta industriak sortzen duena sumatzen dugu. Baina izugarria iruditu zait duela egun pare bat egunkarian irakurri dudana: espazioa ere zaborrez beteta dago, eta gure buruen gainean 1.700 kilo uranio dabiltza dantzan. Ez dakit hemendik aurrera zeru izartsua horren erromantikoa iruditukoa zaidan!

Milioika omen dira espazioan noraezean dabiltzan objektuak, txiki-txikiak batzuk eta sateliteak beste batzuk. Guztira 2.000 tona kaka hor goian igerian. Atera kontuak.

Baina lurrera jaitsita panorama ez da hobea, badakigu. Zibilizazio "aurreratuak" abiada bel durgarrian sortzen ditu hondakinak. Euskal Herrian, esaterako, biztanle bakoitzak 500 kilo zakar sortzen ditu urtean, batzuk gehiago, beste batzuk gutxiago, noski. Kopuru horri hondakin industrialak gehitzen badizkiogu, pentsa...

Txarrena da gero ez dakigula zer egin zabor horrekin. Azken egunotan hainbat protestaldi egiten ari dira Nafarroan hondakin industrialen zabortegia egiteko proiektuaren kontra. Bilbon hasiak dira Zabalgarbi errausteko planta eraikitzen, baina ez dira haren aurkako ahotsak isildu. Inork ez du etxe ondoan halakorik nahi, noski. Konponbidea ez da erraza. Gauza bat argi dago: zabor gutxiago= arazoa txikiago. Agian hortik hasiko bagina...

(.1) —1— rn 7s O O N* Q-

**"Ez dakit hemendik aurrera zeru izartsua horren erromantikoa iruditukoa zaidani"**

Montse Arregi



## Baserri giroan

Gure Euskal Herriko historiari erreparatzen badiogu, makina bat aldaketa somatuko dugu denboraren joanean. Aintzinan, hemengo bizilagun gehienak artzainak omen ziren eta lanbide horretatik bizi gure mendietan.

Gerora, Iaborantza sartu ei zen eta orain dela 35 edo 40 urte arte garisail ederrak baziren gure baserrietako soroetan; horrez gain arto, baba eta patata ugari ere hartzen zen.

Baina batetik, lan asko izaten zelako; bestetik, irabazi urria eta gaur besteko aurrerapenik ez zegoelako, baserritarrek laborantza laga eta abelazkuntzara jo zuten.

Lehen laboresail zirenak, belardi bihurtu ziren eta beste aldi baten esne behiak ipinita, esnetatik bizi izan da baserritarra.

**"Baserria gure euskara eta kulturaren gordelekuak horrenheste merezi du'.**

Europan sartu ginenetik, prezioen konpetentzia latza; zentralek esne-prezioak jaisteak, eta beste arau batzuk ezartzeak, baserri txikietako langileak gogor estutu ditu.

Baserriaren azterketa egin duen aditu bati entzun nion lehenxeago, 10 bat urteren buruan baserriko lanetik bizi den gutxi geratuko dela inguru honetan. Baserriko lanean diharduten gehienak zaharrak ei dira eta gazte gutxi prestatzen dea baserri-lanerako.

Hala ere, bizitzeko era asko dago eta nik uste, orain arteko era horretan ez bada ere, baserriek iraungo dutela.

Azken urte hauetan baserri asko berritu da; herri eta hirietako jendeak ere kaleko zarata eta zurrunbilotik irten nahi du eta zein leku baketsu eta aproposagorik baserria baino, izadiaz gozatzeko? Gure euskara eta kulturaren gordelekuak horrenbeste merezi du.

Juan Mari Elustondo

KeXak ........................................ 5
InOtZ MotZ ........................................ 6
gehigarria ........................................ 13
kiROlAk ........................................ 22
aGenda ........................................ 28

## Urruzuneren bet0 ezkutua

# Sekretuak eta kontuak



Eskoletan, aparteak:

- Zein da ikaslearen lana?

Estudiatzea.

Ez, pentsatzea. Estudiatzea beste kontu bat da.

- Zer da elkarrizketa?

- Bi pertsona edo gehiagoren arteko solasaIdia.

- Solasaldia?

- Bai. Ikusmoldez aldatzeko gauzatzen den berbeta. Ikuspuntuz aldarazten ez duena, ez da elkarrizketa.

- Zer da Askatasuna?

- Alixorra!!!

Amaia Urzelai

## ZEIN ERRAZ XAHUTZEN DEN DIRU PUBLIKOA

"Elgoibar, capital de la ma:quina herramienta, saluda a DEIA, periOttico de Gipuzkoa en esta nueva etapa".

"Elgoibar, erreminta makinaren hiriburuak, DEIA Gipuzkoako egunkaria agurtzen du aro berri honetan ".

Gillenno Garate Alkate Jaunak bere kabuz eta inori inongo azalpenik eman gabe iragarki hau jartzea erabaki zuen DEIA egunkarian. Batasuna, Euskal Herri inguruko edozein egunkari edo aIdizkari baten jaiotzari agurra edo ongietorria ematekoaados dago, baina beti ere, komunikabide orori baldin bada. Baina gertaera honetan ez da egon inongo bilerarik Elgoibarko udaIetxean, ez Batzordeetan ez eta inongo Udalerriko erakundetan erabaki hau hartzeko.

Horrez gainera, ez dago udaletxeak komunikabide berri baten jaiotza apurtu behar duela esaten duen udalarau edo hitzatmenik ere, Gainera, agur hau, arbuiagarria ez den 232.000 ptako dirutza (200.000+32.000 BEZ) kostatu zaigu elgoibartarroi.

Dena PNVren zuzendaritzak DEIA egunkariari diru publikoa ematea agindu duela erakusten du. Biderkatu 200.000 pta. horiek, herri bakoitzak, Diputazioak, Euskal Gobernuak eta beste hainbat estruktura publikoak emandakoarekin eta ikusi nolakoa den batutako dirutza. Milioiak eta milioiak.

PNVk DEIARI dirua eman nahi baldin badio, bere poltsikotik atera dezala. Alderantziz, dirua publikoa izatea nahi badu, gutxienez, udaletxean proposatu beharko zukeen eta denon artean erabaki bat hartu.

Ez dugu eskutitz hau amaitzerik nahi, iragarki honetan euskarari emandako tratamendua adierazi gabe: lotsagarria.

Elgoibarko Batasuna

ASTE KARIA

BaRRen

Nafarroa en parantza, 2
20870 ELGOIBAR
ra. 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-rnalla:
barrenetopaguneacom
Idelbide informatikoa:
www.1opagunea.corrubarren
ARGRARATUILEA
E!,-ts tarko Izat ra

LAGORZAILEA Elgoibarko Udala ZuzENDASIA Eli Aizpure KAzETARUIK IratiAgirreezaldegi, Asier Orbea PuBLIMATEA Amaia Erkizia MAXETATLAILEA Iker DiegoAdmiraSTRAZIOA Amaia Rodrigez GeRENTZ1 Jon Pell Unguen KOLABORMAILEAK Ainhoa Lodolo,Nestor Fuentes, Pello Mendizabal, Juan M. Elustando, AlbeloAnsuategi. Edume Bilhao, GOIZOn Arrieta, Lorea Perez de Albeniz. Jokin Martinez, Montse Arregi, Juanito Gorostiza, AinhoaAndonegi, Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T.. AZALEKO EBAERA ZAHARRA Gazon Garateren Mburutik INPRBLATEGIA Oerle Koop. E. TinkoA 4.025 ale 1.eas GORDAILuA SS4038,92 ISSN 1139-1855

ELGOIDARK0 IZARRA

*Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlarazako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diru: lagundutaka aldizkaria,*

kutxa
zuri eaker

DANOBAT
MADVINAS

GOITI
GROPO PANOL10.7

ti` ESTAIITA

## TXALOAK

• Neska gazte batek Plaza-Txikiko **Ikastolaren ondoko txirrista eta kolunpioak konpontzeagatik,** Udala txalotu nahi du: "Denbora luzean egon dira konpondu gabe eta bertan ume askok jolasten dutenez, konpontzea txalotzekoa dela uste dut".

## (.311111X



• Herritar batek harreta gehiago eskatu nahi die txakurrak pasetzera ateratzen dituzten jabeei eta bide batez, honako hau esan nahi die: **"Madalako etxe berrietan,** adibidez, **lorategiak kakaz** betetzen ari dira, txakurren jabeek ez dituztelalco jasotzen. Herria zaintzeko ahalegin txiki bat egiteko besterik ez dut eskatzen".

## ©11DEsall

• Neska gazte bat etorri zaigu BARRENera **liburutegia Gabonetan eta zubietan** itxi egiten dutela-eta erabat kezkatuta: "Instituzio publikoa da, Kiroldegia, Udala edo Anbulatorioa bezala, eta hauek irekita egoten dira. Orduan, zergatik isten dute liburutegia? Gabonetan adibidez, Eibarrera joan behar izan naiz ikastera".



• King-Kong inguruko bizilagun batek **zakarrak errekara** botatzen dituela-eta kexa hau azaltzeko eskatu digu: " Oraindik errekara basuria botatzeko baloria dakan jentia dao herrixan. Ez da batere atsegina holakuak ikustia, etxian lasai-lasai telebistari begira zaudenian", esan digu.

Barrak, Birrak eta Barreak




Atal honetan kexa, txalo edo galdera argitaratzeko bidali posta elektronikoa, izena eta zure telefono zenbakia zehaztuz, barren@topagunea.com helbidera,

Iose Maria Ansola Goenagak sortu zuen "Talleres Ansola" 1952. urtean. San Inazio kalean tlarbe lantokia egon zen tokian) zegoen kokatuta. Jose Maria kamioilaria zen eta matxuraren bat izoten zuenean, diru guztia konponketetan xahutzen zue1a konturatu zen. Beraz, autoak konpontzea negozio ona eta errentagarria izan zitekeela iruditu zitzaion. Garai hartan auto gutxi zegoen arren, autoak eta kamioiak konpontzen zituzten berak eta 3 langilek. MV Augusta motorrak ziren saltzen zituzten ibilgailu bakarrak. Gisa honetako 1ehen tallerra izan zen Elgoibarren.






## Jose Mari An ola, fundatzailea

Jose Mari Ansola Goenaga 1910eko uztailaren 7an jaio zen Etxeberriko (Bizkaia) "Garro" baserrian.

14 urterekin Elgoibarko Azkarate baserrira (osabak bizi ziren bertan) joan zen morroi lanak egitera.

Ardiak zainduz eta baserriko beste hainhat lan eginaz 4 urte pasa ostean, 18 urterekin Bergarako Urbano Lopez garajera joan zen mekaniko ofizioa ikastera.

Handik gutxtra„soldadutza Melillan egitea tokatu zitzaion. Koronelaren txoferra izan zen.

Soldadutza itzultzean Pedro Loyolaren kamioiarekin hasi zen lanean. Bi urte beranduago kamioia erosi eta bakarrik hasi zen. 1931an atera zuen gidatzeko karneta eta 1996ra arte, 65 urtez, ez zuen aipatzeko moduko istripurik izan, ezta minik hartu ere.

I952an talleres Ansola ireki zuen San Inazio kalean.

1997ko ekainaren I0ean hil zen.

Angel Mari Ansolak, Jose Mariren semeak eta gaur egungo jabeak, azaldu igunez, autoak eta lan egiteko erak oso ezberdinak ziren, "elektronika ez zan existitzen eta pieza gitxi zaudenez, apurtzen edo aberixatzen zian piezak sopletau edo nola edo ahala konpondu biharra zauan". Angel Mari 14 urterekin hasi zen lanean aitaren alboan.

**Aurki, A nalsa izena aidatuko du te eta Giauto (Gipuzkoa a utoak) ipini.**

Beranduago, Pedro Miguel Urruzuno kalera, gaur egun anbulatorioa dagoen ingurura, pasa zuten tailerra. Bertan, Citroen auto etxeko agente moduan egin zuten lan 10 urtez. Duela 25 urte, 1976. urtean, Analsa (Ansola Alberdi S.A.) izena jarri eta Olasora aldatu ziren. Olason finkatu zen lehen enpresa izan zen. Hasieratik eta gaurdaino Angel Mari izan da Olaso Industrialdeko presidentea. Citroeneko kontzesionario gisa 12 urte egin ostean, duela 19 urte, Opel etxera aldatu ziren. Hain zuzen, Opel Espainian azaldu eta berehala, Hasiera baten, kontsezionarioa Ansolatarren Iantokia eta bizitokia izan zen. "Biharragatxik hasi ginan hemen bizitzen, kaleko etxia saldu gendualako eta lan asko gendukalako, garai hartan ez zauan amaitzeko ordurik". Logelako atea zabaldu eta bulegoan sartzea nahiko sentsazio arraroa zela aitortu digu.

Analsa moduan 25 urte egin ondoren, aurki izenez aldatuko dute;



## Auto lasterketak

Angel Mari Ansolak gaztetatik izan du auto lasterketetarako zaletasuna, ez da harritzekoa, betidanik autoz inguratuta egon baita. Citroen 2 CV batekin Top Cross lasterketetan hartzen zuen parte Jaramako (Madril) lur zirkuitoan. Orain dela 34 urte lasterketetan ibiltzeko Renault Alpine bat erosi zuen. Gero Jose Miguel Gabilondori, bere lehengusuari, eman zion autoa eta hau oraindik aritzen da lasterketetan.

## Bezeroen garrantzia

Bezeroak gustura mantentzeko sekretua zerbitzu ona ematea dela aitortu digu Angel Marik. "Bezeruarekin dakazun erlaziva ez da autua saltzerakuan amaitzen, hasi baizik. Kontua ez da autoa saltzia bakarrik, geroko mantenimientuan parte hartzia da garrantzitsuena. Bezero batek behin baino gehixaotan gurekin errep ikatziak ematen dia poztasuna. Dozena erdi auto saldu izan dizkiegun bezeruak ere baditxugu".

**"Enpresa batek 50 urte irauten baditxu zeozergatxik izango da. Negoziorik onenak, bezerorik gabe ez du ezertarako balio".**

Auto bat saltzean bezeroen beharrei kasu egin behar zaiela azaldu digu, "klientiak bihar dabana aztertu ostian, kontzientziaz rekomendau bihar jako zein auto dagokixon berari edo bere biharrei, Eta ez baldin badakagu bihar daban autorik, esatia da onena. Profesionalidadia eta zintzotasuna ezinbestekuak dia. Negozio batek epe luzian iraun nahi badau zintzotasuna biharrezkua da, nahiz eta etekinak epe luzera lortu. Enpresa batek 50 urte irauten baditxu zeozergatxik izango da. Negoziorik onenak, bezerorik gabe ez du ezertarako balio.



Angel Mari Ansola

## Datu interes arriak

-Langile kopurua: 30 langile, Elgoibar, Eibar eta Mendaron banatuta.

-Eraikuntza 4 solairuz osatua dago.

-Departamenduak: salmentak, tailerra, aldagaiak, administraritza, 2. eskuko kotxeen salmenta eta aseguruak.

-Kontsesionario gisa, 1973tik hasita, **17.400 auto saldu** dituzte

| | |
|---|---|
| *Opelak: ....................* | *i0.VV* |
| *Citroeuak: ...............* | *3328* |
| *Hyundai: . . . . . . . . . . . .* | ***3.000_*** |
| *Peugeot: ..................* | *396* |
| *L7a da: .....................* | *205* |
| *Subaru: ..................* | *30* |
| *:Vissan: .....................* | ***14*** |

-Saldu zuten **lehen autoa: Citroen C8.** Prezioa **144.862 pezeta.** Eroslea: Jose Inazio Orbea azkoitiarra izan zen,

-"2CV" baten prezioa 1973an: **103.000 pezeta**



*Jose Luis Ansolak 1940 eta 1980 urte bitartean Ford markako "Maria de la 0" modeloko kamioi batekin egin zuen lan. 1940ko otsailaren 20koa zen kantioia (SS 11391), gerra zibila amaitu eta berehalakoa. Lehen jabea Pedro Loyola elgoibartarra izan zen, baina gidari bakarra Jose Mari Ansola. Era guztietako garraioak eta lanak egiteko erabili zuen kamioia 30 urte luzetan.*

Arraina garraiatu zuen Madrilera eta Bartzelonara.

Udako igandeetan Debako hondartzara jendea eramaten zuen.

C.D. Elgoibarko futbolariak ere joan ziren kamioi gainean.

Arrate, Arantzazu, Urkiola, San Migel edo Santa Eufemiako erromerietara jendea eramaten zuen.

Eibarko jauntxoek Soriara ehizara joateko erabiltzen zuten.

Chivitetik (Nafarroa) ardoa ekartzen zuen Aizpitarte ardoentzat.

Azkue okindegiarentzat eta beste batzuentzat egurra eta ikatza ekartzen zuen Zumaiatik.

Luis Agirregomezkorta "Narre-ri erreminta makinaria garraiatzen zion Bilboko portura.

Mutrikun hartutako antxoak Mendaroko kontserba lantokira eramaten zituen.

Eibarko Ipurua futbol zelaia egiteko betelanetarako materiala (lun•a, harritxoak...) kamioi honek eramanak dira.

20 urte baino gehiagoan Elgoibarko suhiltzaileen kamioi ofiziala izan zen.

Basuraren kamioia ordezkatu zuen, konponketa baten beharra zuenean.

Arnoate klinikan, famatua eta bakarra bailaran, norbait hiltzen zenean, hilotzak garraitzeko erabili zen.

Altzariak, Ofiatiko ladreiluak, Arroako harrobiko harriak... garraiatu zituen.

Hauez gain, beste mila zerbitzutarako erabili zen. 1991. urtean omenaldia jaso zuen kamioiak eta gaur egun Mendaron dago, oso egoera onean, Angel Marik museoren batean sartzeko asmoa duela azaldu digu, gainera.

# Otsallean egingo da Urruzunoko 40 etxebizitza sozialen zozketa

## Gainontzeko 120 etxe kontzertatuen eraikuntza lanak atzeratu egingo dira

Joan den azaroan esan genizuen Urruzunoko etxebizitza sozialen zozketa urtarrilean egingo zela, baina Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailetik adierazi digutenez, otsailera atzeratu dute. Zozketa honetan 40 etxebizitza sozial zozketatuko dituzte. Bestalde, proiektu honen baitan beste 120 etxebizitza kontzertatu ziren eraikitzekoak, baina lanak atzeratu egingo dira eraikuntza enpresarekin izandako arazoak medio.



Etxebizitza sozialak eskuratzeko izena eman zutenen zerrendak udaletxean jarri zituzten ikusgai, eta errekurtsoak aurkezteko epearen ondoren, otsailean egingo dute 40 etxebizitza sozialen zozketa. Bi zati izango ditu zozketa honek: batetik kategoria neurtuko da. Izan ere, 3 etxebizitza elbarrituentzat gordeko dira, beste bat guraso bakarreko familia batentzat eta 35 urtetik beherakoentzat, 20. Ondoren, kontuan hartuko da familiako kideen kopurua, eta horren arabera etxe handiagoak edo txikiagoak emango zaizkie.

**Eraikuntza arazoak**

Bestalde, Urruzunoko proiektuan etxebizitza sozialez gain, 120 etxe kontzertatu eraikitzeko asmoa dago, baina lanak atzeratu egingo dira. Makinek lursaila garbitu zuten arren, lanek ez dute aurrera jarraitu. Arazoak izan dira eraikuntza enpresarekin eta baliteke lanak beste enpresa baten esku jartzea.

Hala ere, eskaria eginda zutenentzat oraindik luze joango da itxaronaldia, lanak hasi zirenetik denbora asko pasa da-eta.

# Fatronik eta Ideko Teknologia Zentroek elkarlanerako hitzarmena sinatu dute Gipuzkoako Foru Aldundiarekin

## Akordioa 2003. urtera artekoa izango da eta enpresek 480.800 euro, 80 miiioi pta, jasoko dituzte

rlipuzkoako Foru Aldundiak eta Ideko eta Fatronik Teknologia Zentroek elkarlanerako hitzarmena sinatu dute "Errendimendu Handiko Fabrikaziorako ikerketa estrategikoa" izeneko programaren barruan. Akordioa 2003 urtera artekoa izango da eta enpresek 480.800 euro (80 milioi pta.) jasoko dituzte.




Foru Aldundiak, produktu berri eta prozesu berritzaileak ikertu eta garatzeko laguntza eman nahian, diruz lagunduko du makina erreminta fabrikatzaileek estrategikotzat jotzen duten ikerketa programa. Ideko eta Fatronik Teknologia Zentroak izango dira Errendimendu Handiko Fabrikazio arloetan ezagupenak garatu eta hauek industria arloan zabaltzeko arduradunak. Azken helburua Gipuzkoako enpresen artean lehia hobetzea da.

**Berrikuntzaren aldek o apostua**

Badira urte batzuk, Euskal Herriko makina erreminta fabrikatzaile garrantzitsuenek berrikuntzak sartzeko apostua egin zutela. Munduan lortutako posizio konpetitiboa mantentzen laguntzeko, ikerketak egiteko azpiegiturak bultzatu zituzten eta horrela sortu ziren Ideko eta Fatronik Teknologi Zentroak.

## "Elkartasun Taloak" taldeak 202.000 pezeta bildu ditu Cuscori laguntzeko

Joan zen abenduaren 29an, Gabonzahar Ferian, "Elkartasun Taloak" taldeak txozna jarri zuen Urruzuno kalean. Intsumiso taldearentzat dirua bilizen hasi ziren eta azken urteotan elkartasun ekintzen alde batu dute laguntza. Aurten Peruko Cusco hirirako batu dute dirua, Misqui taldearen bitartez 202.000 pezeta bideratuko dituzte bertara. Elkartasun taloak taldekoek esan digutenez, "gure aldetik eskerrak eman nahi dizkizuegu. Batetik, taloak egiten lagundu zenigutenoi eta bestetik, bertara gerturatu zineten guztioi". Bide batez, datorren urtean ere bertan egongo direlakoan, gonbitea luzatu nahi diete herritarrei bertaratzeko.






## Urasandiko eskailera mekanikoak egiteko 150 milioi gastatuko ditu Udalak

Udalak Izartu programaren banuan hainbat dirulaguntza eskatu zituen, eta Eusko Jaurlaritzak 150 milioi pezetan utzi du 2002rako laguntza. Udalak jadanik erabaki du Izartu programatik jasotako diruarekin herrian zein lan egingo dituen. Batetik, eskailera mekanikoak eraikiko ditu eta bestetik Urasandi auzoan aparkalekua egingo du. 2002an 4 eskailera tramo eraikiko dituzte Urasandin: 2 King-Kong zubitik "Casa del Pueblo"-ra, bestea goiko plazatik Galiza Etxera eta azkena, hemendik auzoaren goiko partera. 130 milioi Izartu dirulaguntza programatik jasotakoak izango dira eta gainontzeko 20 milioiak Udalak jarriko ditu. Urasandiko aparkalekua egiteko, berriz, 27 milioi pezeta erabiliko dituzte. Parking hau patinetean ibiltzeko "u"-a dagoen tokian jarriko dute.

## hilabeteko kartzela zigorra jarri diote Jon Garateri



Jon Garate gazte elgoibartarra joan den azaroaren 9an epaitu zuten 1999ko abenduan Euskal Presoen aldeko protesta ekintza batean parte hartu zuelako. Joan den astean jakin zuen epaiaren sententziaren berri: indarkeria delitua leporatu diote zirkulazioa oztopatzeagatik, besteak beste. Ondorioz, 6 hilabeteko kartzela zigorra jarri diote Garateri. Gogoratu beharra dago hasieran fiskalak 2 urte, 4 hilabete eta egun bateko zigorra eskatu zuela berarentzat. Garatek adierazi digunez, sententzia errekurritu egin du, eta orain azken epaiaren zai geratu beharko da.

## Kandelaria eta San Blas Egunetan kandelak eta opilak bedeinkatuko dira elizan

Otsailak 2, zapatua,, Kandelaria eta otsailak 3, domekia, San Blas. Bi ospakizun hauek direla-eta elizkizun bereziak egingo dira. Kandelaria Egunez argizarizko kandelak eramango ditu herritar batek baino gehiagok bedeinkatzera elizara. San Blas Egunean opilak eta kordelak bedeinkatuko dira fardelean eramandako beste hainbat gauzarekin batera. Beraz, honako ordutegi hauetan egingo dira bedeinkazioak elizkizunetan:

| KANDELARIA (Otsailak 2) | SAN BLAS (Otsailak 3) |
|---|---|
| Parrokian 11:00etan | Santa Klarako elizan 9:30 |
| Madalako elizan 10:00etan | Parrokian 10:30/11:30/12:30 |
| | Madalako elizan 8:30/12:30 |

# AZKEN BOLADAN, JAUZI AL ZARA GRIPEAREN ATZAPARRETAN?



### CORO GONZALEZ
**40 urte, etxekoandrea**

Ez, senarrak harrapatu du gripea, baina nik ez. Denboraiik ere ez dut izan gaisorik jartzeko. Baina gaisotuko banintz, ohean egotea eta aspirinak hartzea izango litzateke erremedioa.

### JUAN JIMENEZ,
**47 urte, langabetua**

Ez, Gabonetan eztul piska bat izan nuen, baina griperik ez. Gripeari aurre egiteko laranja asko jatea ona dela diote, C bitamina duelako. Bestalde, harrapatuz gero, ohean egon eta likido asko edan.





### FLORENTINO LEIARISTI
**73 urte, jubilatua**

Ez, ni ez nau harrapau gripiak. Bakunau ein nintzan eta horrek - asko I aguntzen dabala pentsatzen dot. Harrapau ezkero, ohian pare bat egunian egon, izardixa bota, janari garbixak jan eta aurrera.

### JESUS MARIA CORO
**72 urte, jubilatua**

Oraingoz ez naute kontagiatu. Baina etxeko bat gripearekin ingresatuta dago ospitalean eta beste senide bat ere, oso gaisorik . Bakunatzea omen da prebenitzeko modua, baina gurean ez da nahikoa izan, berdin gaisotu gara.





### ESTHER PEREZ
32 **urte, sukaldaria**

Ez zait tokatu, zortea izan dut eta ez dut griperik harrapatu. Baina epidemia omen dago eta harrapatuz gero, medikuarengana joatea eta ohean egotea beste erremediorik ez dago.

### M.LUISA GURRUTXAGA
**49 urte, etxekoandrea**

Ez, azken urte hauetan ez, eta ez nuke nahi, gainera. Tailarrian lanian ibili nintzanian bakunia ematen zaben eta hartu izan naban, baina oin ez diot erremedixorik ipintzen. Pasau ein bihar.



---



## *ESKERTZA*

*2002ko urtarrilaren 26an, 92 urte zituela hil zen RAMONA ARANBERRI AROSTEGIren sendiak, bihotzez ESKERTZEN ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



# URTARRILA

## JAIOTAKORK



Aitor Niebla Moreno.
Urtarrilak 4.
Jose Luis eta Maria Rosario.



Gorka Mugerza Garcia.
Urtarrilak 16.
Jose Antonio eta Natalia.



Naia Arozena Ruiz de Gauna. Urtarrilak 8.
Miguel Angel eta Amagoia..

## HILDAKOAK

Nicolas Eceiza Eceiza.
99 urte. Urtarrilaren 6an.
Angel Conde Conde.
65 urte. Urtarrilaren 7an.
EncarnaciOn Zubizarreta Berraondo.
88 urte.
Maria Osoro Cienfuegos.
87 urte. Urtarrilaren 22an.
Ramona Aranberri Arostegi.
Urtarrilaren 26an. 92 urte.

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira 943 74 41 12 telefonora edo bidali e-postaz barren@topagunea.com helbide elektronikora.

## Farmazia

| EGUNEZ | GAUEZ |
|---|---|
| 2 Etxeberria | Etxeberria |
| (Errosario ka[ean) | |
| 3 Etxeberria | Etxeberria |
| {Errosario kalean) | |
| 4 Ibafiez | Ibañez |
| 5 Bidasolo | Bidasolo |
| 6 Etxeberria | Etxeberria |
| (Sanla Ana kalean} | |
| 7 Fernandez | Fernandez |
| 8 Yudego | Yudego |

**FARMAZ1AK**

1BAÑEZ, Rekalde, 1 5oraluze. 943 75 16 38
FERNANDEZ, Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
ZABALETA, Kalebarren, 9 Sorduze. Tei: 943 75 13 84
`eguerdiko 2ak arte

## okindegia

3 igandea **Idarraga**




# ETXEBERRIA
## Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

**KUTXAK - TRASLADOAK KOROAK**

**NORBANAKOEI** eta KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak.
Donostia eta probintziako erietxe zentroetan ere bai.

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 74 16 56 (Mobila) 608 77 07 01

# ERREZETA

## AGUSTIN GALLARDO



Otsailaren 3a San Blas Eguna dela-eta, bitxikeria moduan, Getafeko okin batena da errezeta. Agustin Gallardo Getafekoa da baina San Blasak egiten ditu bere okindegian. Elgoibarko hikote batekin harreman handia egin zuen ezkon-bidaian eta harrez geroztik, urtero etortzen da gure herrira. Adiskidetasunaren errezeta ez dakigu Elgoibartik eraman zuen ala ez, baina bai San Blasena.

### SAN BLASAK

**OSAGAIAK:**

Kilo bat irin.
300 gr. arrautza
125 gr. zerri tnanteka
125 gr. mantekila
425 gr. azukre
Anis esentzia

*San Blasa dekoratzeko: arrautza baten zuringoa, 200 gr. glas azukrea eta limoi-zuku tanta batzuk.

**PRESTAKETA**

Arrautzak, azukrea, mantekila, zerri-manteka eta anis esentzia batidoran nahastu eta piskanaka-piskanaka irina bota. Hau guztia egiteko, hatidora abiadura motelean eduki behar dugu. Guztia nahastu ondoren, batidora bigarren martxan ipini, masa arindu eta fina gelditu arte.

Masa prestatu ostean, 60 gramoko zatitan bereiztuko dugu eta pieza bakoitzari opil forma eman behar diogu.

Labea 180 gradutan ipini ostean, 12 minutu inguruan sartuko ditugu opilak. Kolore asko ez hartzea kontutan eduki behar da, bestela asko gogortzen dira-eta.

Bestalde, arraultza zuringoa eta azukrea montatu, limoi zuku tanta batzuk bota, kolore txuria emateko, eta opilak beroak dauden bitartean, gainetik igurtzi.

# nola ALDATU diren gauzak!



**1965.** urte ingurukoa da hemert ikus dezakezuen erretratua. "Forjas de Elgoibar" tailerra da. Izenak berak dion bezala, forja lanak egiten ziren bertan: Haizkorak, mailuak..., ferreteriako gauzak, alegia. Herritar asko eta asko, oraindik ere gogoratuko dira tailer honetako matxinoak ateratzen zuen zaratarekin, Elgoibarko alderdi guztietatik entzuten baitzen.

Aurrealdean baratzeak zeuden. Erretratuan ikusten den txabolan, hilean azkeneko feriara ekarritako ganadua gordetzen zuten bezperatik



**2002.** urtean dena erabat aldatuta dago. Ikus dezakezuen moduan, "Forjas de Elgoibar" gaur egungo Leku Ederren zegoen. Duela 25 urte inguru bota zuten fabrika eta ondoko baratzeak eta txabolak ere dagoeneko ez daude. Horren lekuan, etxebizitza ugari egin dituzte eta iaztik, Musika Eskola berria dago bertan.

Juanito Gorostiza

GEHIGARRIA · HILEROKO ELKARRIZKETA 2002ko otsaila/X

# BARRen

/11
ASTEKARIA

## elkarrizketa



**"AMERIKETAN OSO ONDO HARTU NABE, EZ DAKITX GU EUREK NI TRATAU NABEN MODUAN TRATATZEKO GAI IZANGO OTE GINAKEN"**

*Juan* Barrenetxea

# Juan Barrenelxea

## “Ameriketan balixo do

*JUAN BARRENEIXEA SAN MIGELGO ALIZATE BASERRIAN JAIOA DA, BAINA PATUAK EDO MUNDUA EZAGUTZEKO GOGOAK ZIZTATUTA, SORLEKUA LAGA ETA ESTATU BATUETARA JOAN ZEN 27 URTE ZITUENEAN, BESTE HAINBAT INDIANOREN MODUAN. 30 URTE EGIN DITU BERTAN, BAKERO LANETAN LEHENIK ETA EGURGILE MODUAN ONDOREN. GUTAKO ASKOK TELEBISTAN EDO FILMEETAN IKUSI DITUGUN GAUZAK GERTUTIK IKUSTEKO AUKERA IZAN DU AMERIKETAN ETA EHUNKA BIZIPEN DITU KONTATZEKO MODUKOAK. HALA ERE, TAMALEZ GUREIZAT, EZ DIZKIGU GUZTIAK KOIVTATU, INDIAR ZAHAR BATEK ESAN ZION MODUAN, "DENA KONTATUZ GERO, BESTEAK NORBERAK BAINO GEHIAGO JAKITEN DU, ETA HORI ERE EZ DA KOMENI".*





-Zenbat urterekin joan zinen Ameriketara (Estatu Batuak)? 26 urtekin jun nintzan Iehenengo bider Ameriketara. Ordura arte San Migelgo Altzate baserrixan bizi nintzan. Baserriko lanez aparte, tailerrian ere ibili nintzan, ajustadore moduan.

-Nolatan hartu zenuen jaioterria laga eta ozeeanoa zeharkatzeko erabakia? Aulestiako lagun batzuk nakazen Ameriketan eta haren bitxartez jun nintzan. Ondo bizi ziala eta eurekin juteko esan zien. Hemen gustura nauan, lanik ez jatan falta, baina hango bizimodua probau nahi naban. Gaztia nintzan eta mundua ezagutzeko gogua nakan.

-Bertara heldu eta zertan hasi zinen lanean? Boisera (Idaho) ailegau nintzan eta jun aurretik banakixan zertan ibiliko nintzan. Ganaderixa edo "rancho" batian bakero moduan hasi nintzan lanian. Simplot konpainiantzako ein naban lan 1971tik 1975era bitxartian. Gaur egun munduko ganau konpainia haundixena da, 150.000 abelburu edo behi ditxute. Ni izan nintzan garaixan 80.000 abelburu inguru zitxuen. 20 lagunek eitxen genduan lan "rancho" haretan eta nere arduria 10.000 txaali jaten ematia zan. Kamioiekin eitxen genduan lan, klaro.

-Lan gogorra izango zen, ezta? Lan gogorra bai, baina asko gustatzen jatan. Behixak lepotik harrapatzeko bakeruek erabiltzen ditxuen lazuak gordeta ditxut oindiokan, nahiz eta zelaerabiltzen dian piska bat ahaztu. Gainera gabero etxera bueltatzen ginan. Udan bakarrik eitxen genduan hilabete bat mendixan, jaiotzen garaixan, hain zuzen ere.

-Boise euskaldun asko dagoen hiria da, ezta? Bai, hementxe moduan nitxuan lagunak. Markinako lagunak euki nitxuan a1buan hasieratik eta alde horretatik suertia euki naban hango bizimodura ohitzen juteko.

-Espero zenuena modukoa iruditu al zitzaizun Amerika? Ez, espero nabana baino hobia.

-Zenbat denbora egin zenuen Euskal Herrira itzuli gabe? Beti akordatzen nintzan Euskal Herrixakin, baina 8 urte egon nintzan bueltau gabe.

-Nora joan zinen "raneho"-a laga eta gero? Idahotik Seattlera (Washington) jun nintzan 1976. urtian. Estatu Batuetako ipar mendebaldian dao, Kanadakin mugan. Lagun bizkaitxar batzuk oporrak pasatzera etorri zian Washingtonetik Boisera eta eurekin juteko esan zien, mendixan lanian gehixao irabaziko nabala-eta. Holaxe izan zan, "rancho"-ko hilabeteko soldatia egun bakar batian irabazten genduan mendixan arbolak mozten. Crown Selvac konpainian hasi

# ula mostrauz gero, aurrera eitxen dozu"



nintzan lanian. Hau ere, Ameriketako konpainiarik handixenetakua da bere alorrian.

-Egurgile lana ere gogorra, ezta? Ez, neretzat mendiko bizimodua oso ona da. 20 urte ein ditxut arbolak mozten, atera kontuak.

-Zeinentzat zen mozten zenuten egurra? Egurrik gehixena Japonera esportatzen genduan, %80 inguru.-

-Nola ikasi zenuen egurgile ofizioa? Euskal Herrixan basuan ibilixa izanagatxik, hango arbola erraldoiak botatzia ziharo ezberdina da. Askok sinistu ez arren, arbolak botatzen ikasteko argibide Iiburu bat ere badao. Autoko karneta ateratzia modukua da. Gero, neu ibili nintzan bestieri pinuak botatzen irakasle lanetan 3 urtez konpainian bertan.

-Zein tamainakoak ziren mazten zenituzten zuhaitzak? Izeiak (abeto) botatzen genitxuan guk.100 metroko altuera eukitzera ailegau leikez. Bota doten handixena Alaskan moztu naban eta 100 metro kubiko zitxuan. Indixuen erreserba batian

**"ZORITXARREZ, ESKIMALEN PORTZENTAJE ALTU BAT ETA BAITHA INDIUENA ERE, ALKOHOLAREN ERRUZ IZORRAUTA DAO"**

5.000 urteko arbola bat ere botatakua naiz. Gaur egun debekauta dao holako arbolak botatzia.

-Nolakoa da Alaska? Alaskako paisajia. ikusgarrixa da, basoz eta animaliz beteta dao. Hartzak, altziak, otsuak, ur-txakurrak... danetik ikusi dot. Askotan irletan eitxen genduan lan eta helikopteroz mobitzen ginan batetik bestera. Danera 5 uda ein nitxuan Alaskan, 86tik 95era bitxartian.

-Nolako tresneria erabiltzen zenuten lanerako? Motozerrek 2 metrotik gorako zerrak ditxue. Enborra nahi dan lekuan botatzeko, berriz, katu hidraulikuak erabiltzen dia. Inportantia da arbolia guk nahi degun tokira jaustia, bestela apurtzeko arriskua dao eta baloria galtzen dau. Enbor bakoitzak 5 milioi pezeta (30.050 euro) inguru balio ditxu eta goiz bat bihar da bakoitza botatzeko.-

-Indiarrak ezagutu al zenituen? Bai, eta baitxa eskimalak ere. Indixuak erreserbetan bizi dia. Iaz, adibidez, Seattleko Maka indixuen erreserban ibili nintzan lanian. Eskimalak, berriz, oso jente ona dia, hemengo baserritxarren tipokuak. Zoritxarrez, eskimalen portzentaje altu bat eta baitxa indiuena ere, alkoholaren erruz izorrauta dao.

-Nolakaak dira Amerikarrak? Oso jende ona. Ez dakitx gu eurek ni

**"20 LAGUNEK EITXEN GENDUAN LAN IDAHOKO "RANCHO" HARTAN ETA NERE ARDURIA ZAN 10.000 TXAHALI JATEN EMATIA"**

tratau naben moduan tratatzeko gai izango ote ginakeen. Ameriketan balixo dabanak aurrera eitxen dau. Hori bai, demostrau ein bihar dozu balixo dozula, berriketek eta tabernako kontuek ez dabe balixo han.

-Zer iritzi dute amerikarrek easkaldtbei buruz? Euskalduna oso ondo ikusitxa dao, fama ona dakagu. "Mas vale una palabra de un vasco que la firma de un mexicano" esaeria dao.

-Non zeuden irailaren Ilko Dorre Bikien aurkako atentatuan? Washingtonen (Seattle) nauan. Ordutikan asko aldatu da amerikarren izakeria. Bildurrik ez dauke, baina konfidantzia galdu dabe.

-Nola ezagutzen zaituzte San Migelen? "Amerikanua" edo "Altzate" deitzen diate eta han, berriz, John naiz.

-Berriz itzultzeko asmorik? Ez da momenturik onena, ikusiko dou.

# atzciu be

## pausoz pauso



-Juan Barrenetxeak 58 urte ditu eta azken 30 urteak Estatu Batuetan pasa ditu bakero eta egurgile lanetan.



-Bota duen zuhaitzik handienak (iruditan) 100 metro kubiko eta 100 m.ko altuera zuen. Moztu duen zaharrenak, 5.000 urte zituen.



-Gaztetan harrijasotzen ibili zen eta Estatu Batuetan ere antolatu zituen herri kirol erakustaldiak.



-1971tik 76ra bitartean Idahoko arrantxo batean egin zuen lan bakero moduan. Garai hartan ikusi zuen munduko zekorrik handiena, Satan izenekoa.



-1976. urtean Seattle-era joan zen egurgile moduan lan egitera, Crown Selvac konpainian. Argazkian lagun egurgileekin batera ageri da.



-Azken urteotan Euskal Herrian egonaldi laburrak tartekatuz pasa du denbora. TazkO urrian itzuli zen azkenenekoz etxera, Altzate baserrira, hain zuzen ere.

## besteen ahotan



### Jose Andres Arrizabalaga

Jose Andres Arrizabalagak 32 urte ditu eta betidanik ezagutzen du Juan Barrenetxea, "Juanito eta ni auzua gera, Ariztitxiki baserrikua bainaiz ni eta bera Altzatekua. Beti lagunizeko prest dauctn bihotz oneko gizona da, oso jatorra".

Estatu Batuetan urte askoan bizi izanagatik izaera bera izaten jarraitzen duela aipatu digu, "hango handitasunaren berri hitz eitxia gustatzen jako, han dana baitxa hancfixa, baina bera ez da batere aldatu".

Bestalde, oso kirolzalea izan dela beti azpimarratu digu. "Kirolzde amorratua da, kirol guztixak jarraitzen clilxu eta baiixa entencliu ere. Gaztetan kirol asko eindakua da eta harrijasotzaile ona izandakua".

# informazioa

# 1r INTERESEKO TELEFONOAK

OSASLINA

| | |
|---|---|
| Larrialdiak | 112 |
| Anbulatorioa | 943 03 26 10 |
| Planning-a | 943 74 29 50 |
| Alkoneliko Anonimoak | 943 74 03 85 |
| 0.Y.A (anbulantzia) | 943 46 46 22 |
| Gurutze Gorria | 943 74 38 64 |
| Mendaroko Ospitalea | 943 03 28 00 |
| Odol Emaileak | 943 74 39 36 |

GARRAIOAK

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak. | 902 54 32 10 |
| PESA (Eibar) | 902 10 12 10 |
| Taxi geltokia | 943 74 08 98 |

UOALA

| | |
|---|---|
| Udaletxea | 943 74 10 50 |
| Euskara Zerbitzua | 943 74 43 66 |
| Ongizate zerbitzua | 943 74 10 08 |
| Kultura Zerbitzua | 943 74 21 58 |
| G1G (Gaz1e I nf ormazo Gunea) | 943 74 14 61 |
| Udaltzaingoa | 943 74 13 94 |
| Udal Kirol Patronatua | 943 74 44 15 |
| Mendaroko Udala | 943 75 61 00 |

BESTELAKOAK

| | |
|---|---|
| Elgoibarko Izarra | 943 74 16 26 |
| Kiroldegia | 943 74 44 15 |
| Kontsumo Bulegoa | 943 74 30 88 |
| Liburutegia | 943 74 35 25 |
| Musika Eskola | 943 74 21 45 |
| Mintxeta | 943 74 43 15 |
| Parrokia | 943 74 08 42 |
| Postetxea | 943 74 15 47 |
| Gaztetxea | 943 74 35 72 |

ADINEKOEN ETXEAK

| | |
|---|---|
| San Lazaro Egoitza | 943 74 02 96 |
| Zaharren Biltokia | 943 74 05 26 |
| Eguneko Zentroa | 943 74 45 65 |

IKASTETXEAK

| | |
|---|---|
| Haur Eskola | 943 74 21 41 |
| HHI (EPA) | 943 74 08 80 |
| Herri Eskola | 943 74 08 79 |
| I.M.H. | 943 74 41 32 |
| Institutua | |
| Arreitu rre | 943 74 80 19 |
| Ezenarro (Meka) | 943 74 80 19 |
| Ikastola | 943 74 44 41 |
| Pilar Ikastetxea | 943 74 13 31 |

KOMUNIKABIDEAK

| | |
|---|---|
| BARREN | 943 74 41 12 |
| El Diario Vasee | 943 74 40 73 |
| El Correo Español | 943 74 10 82 |
| Zazpiki irratia | 943 74 34 74 |
| Egu nkaria | 943 30 02 22 |
| Gara | 943 31 69 99 |

## EuskoTren

TRENAK

DONOSTIA-BILBO
Egunero

| | |
|---|---|
| DontistiamARA | 5.A5 06.45. 20.45 |
| Elgoihar | 07.02 08.02.. 22.02 |

*iaiegunetan 7.45ean hasiko dira eta orduenlepul9> dint

BILBO-DONOSTIA
Egunero

| | |
|---|---|
| Bilbo | 06:00 7.00... 20.00 |
| Elgoihar | 07.23 08.23... 21.23 |

* jareguneran 8.00etan hastko dira eta orduero egongo 1ra

## EuskoTreh

MENDARO-ELGODIAR
Egunero
Mendaro 07.50 08.50... 21.50

ELGOIBAR-MENDARO
Astegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgothar | 07.25 | 08.25 | 10.25... | 21.25 |

jaiegunetan

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Elgoibar | 08.25 | 09.25 | 10.25... | 21.25 |

LARUNBAT GAUA

## PES, AUCOBUSAK

EIBARONDARROA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Eibar | 00.30 | 02.30 | 04.30 | 06.30 |
| Elgoibar | 00.40 | 02.40 | 04.40 | 06.40 |
| Deba | 00.50 | 02.50 | 04.50 | 06.60 |
| Mutriku | 00.55 | 02.55 | 0-t.55 | 06.55 |
| Ondarroa | 01.05 | 03.05 | 05.05 | 07.05 |

ONDARROA-EIBAR

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ordarroa | 23.30 | 01.30 | 03.30 | 05.30 |
| Mutriku | 23.40 | 01.40 | 03.40 | 05.40 |
| Deba | 23.45 | 01,45 | 03.45 | 05.45 |
| Elgoibar | 23.55 | 01.55 | 03.55 | 05.55 |
| Eibar | 00.05 | 02.05 | 04.05 | 06.05 |

*Autobusetako infonnazioa lortzeko deitu Eibarko infonnazio bulegora.* ***TeL 902 101 210.***

karkizano
San Frandsko, 14 – Tel, 943 74 05 49

Arrieta

OIERKI IGOGAILUAK
Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua
943 82 01 09 Faxa: 943 82 01 62
Inclalezio Ojanguren 2, behea 20600 EIBAR

## Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek jaialdia egin zuten Ikastolan

Joan den ostiralean, urtarrilaren 25ean, Ikastolako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek jaialdia eskaini zuten Ikastolako frontoian. 2 urteko haurretatik hasi eta 6. mailara bitartekoek dantza, kantu eta antzerkirako duten abilezia erakutsi zuten bertara joandako senide, lagun zein irakasleen aurrean. Bestalde, Batxilergoko ikasleek ikasbidairako dirua ateratzeko asmoz taberna jarri zuten frontoian, pintxoak eta edariak salduz. Beraz, guztiek giro politean pasa zuten ostiral iluntzea Ikastolan



## a enda

Otsailak 4, astelehena

**SANTA AGEDA**

15:30-16:30 **KALEZ KALE KANTARI**

Antolatzailea: Elgoibarko ikastola

15:30- URASAND1N KANTARI

Antolatzailea: Herri Eskola



## Herri Eskolako 82 ikasle eta gurasok Donostiara bisita egin dute

Guraso Elkarteak antolatuta, Donostiara txangoa egin dute Herri Eskolako 62 guraso eta ikaslek. Miramonen dagoen Kutxaespazio zientzia gunea bisitatu zuten lehenengo eta planetarioa ondoren, Bidaia garraio publikoak erabiliz egin zuten. Trenez atera ziren Elgoibartik eta gero Donostian ban̄ena autobusez bidaiatu zuten. Eguna modu politean igarotzeaz gain, zientziari buruzko hainbat ezagutza jaso zituzten ikasleek eta gurasoek.

## San Juan Bosco Eguna ospatu zuten urtarrilaren 25ean Elgoibarko Institutuan

Ostegunean, urtarrilaren 31n, San Juan Bosco Eguna izan zen. Baina Elgoibarko Institutuko ikasle eta irakasleek egunari aurrea hartu eta urtarrilaren 25ean ospatu zuten. Goizean goiz, motorrak berotze aldera, korrika eta bizikleta saioak izan ziren. Gora egiten duen guztia behera etortzen omen da noizbait, eta hori garbi utzi zuten goiti-beheretan San Rokeko aldapan behera jaisten ausartu zirenek. Beste batzuk





inprobisatutako sukaldeetan suarekin jolasean demostratu zuten beraien abilezia, patata tortilak egiten, hain zuzen ere. Berriz ere kiroletara bueltatuz, sokatiran eta futbitoan neurtu zituzten indarrak ikasleek. Kirolak kulturari lekua egin eta antzerki emanaldiarekin bukatu ziren ekitaldiak. Amaitzeko, bazkaria izan zuten, eta gero "Azkena" dantzalekuan dantzarako aukerarik ez zuten falta izan.

# 104 lagunek egin zuten Aralarko trabesia Morkalko Mendizale Elkartearekin

## Hurrengo irteera Gorbeiara izango da, otsailaren 23an



104 lagun atera ziren pasa den domekan, urtarrilaren 27an, Plaza Handitik Aralar mendilerrora. Azken aldian Morkaikok antolaturiko irteeretan arrakastatsuena izan zen jende kopuruari dagokionez. Mendizalez betetako bi autobus joan ziren Aralarko San Migelera (Guardetxe) eta handik Gipuzkoa aldera, Larraitzera abiatu ziren. Bidean IrumugatTieta, Ganbo, Pardarri eta Txindoki mendiak igo zituzten batzuek, eta besteek mendirik igo gabe egin zuten trabesia. Autobusetako batek arazo bat edo beste izan arren, eguraldi ederra izan zuten lagun mendizaleek eta gustura aritu zirela aipatu digute.

**Finalista Eguna**

Finalista Eguna ekaineko asteburu baten ospatzen dute Morkaikokoek, San Pedron. Bertan sarituak izan nahi dutenek, merituak egin beharko dituzte aldez aurretik, maiatza bitartean, hain zuzen ere. Honako hauek jasoko dituzte sariak: 10, 15 edo 20 mendi igotzen dituztenek eta 10.000, 20.000 edo 40.000 metro osatzen dituztenek. Mendi bakoitza igotzea lortu ondoren, txartela bete eta buzoian laga behar da. Honez gain, norberak duen beste txartel batean igotako mendien zerrenda egin behar da, mendiaren izena, igotako eguna, altuera... adieraziz. Zerrenda hau da maiatza baino lehen Morkaiko Mendizale Elkartean entregatu behar dena.

# Fernando Medinak jaso du Club Deportivo Elgolbarren Gabonetako otarra



**C.D.** Elgoibarrek urtero Gabonzahar Egunean zozketatu zuten otarraren zenbaki saritua, 1.490 alegia, ez da azaldu. Beraz, 30 eguneko epea pasa ostean, ordezko zenbakiak, 25.006, eskuratu du lehen saria. Zenbaki sarituaren jabea Eibarren bizi den Fernando Medina "Txími" da. Bigarren sariduna, berriz, berehala azaldu zen. Jesus Mari Etxeberria elgoibartarra da 25.451 zenbakiaren jabea. Zorionak bi sarituei, eta on dagiela ! C.D Elgoibarko zuzendaritzak laguntza eskaini dieten herritar guztiak eskertu nahi ditu, bai denboraldian zehar emandako lagun tzarengatik eta baita Gabonetako otarra antolatu eta errifak saltzen egindako lanarengatik ere.

## EMAITZAK

**Futbola**

Haundi 5 - Aloria-Mendi **1 (Pref.)**
Elgoibar 1- Gazteak **3 (1. erreg.)**
Pedrusko **2 (1. erreg.)**
Idiazabal 0 • Elgoibar **3 (Kad.)**
Hondarribia 1 Elgoibar **2 (10.)**
Urota 1 Elgoibar **3 (Neskak)**

**Esku pilota**

**Euskal Herriko Liga**
Goenaga/lriondo **22 (Lagunak)**
Aranburu/Urresti 11 **(lurreta)**

**Gipuzkoako Txapelketa**
Lagunak **18** - Elordi **6 (Inf.)**
Bergara **18** - Lagunak **5 (Inf.)**

**Debarroko Txapelketa**
Etxaniz/Agirreberta **15 (Eibar)**
Ulazia/Loiola **22**

Etxabe/Bengoetxea **22 (Eibar)**
Muguruza/Lazarobaster **8**

Goenaga/lriondo **22**
Garate/Atxotegi **0 (Oskarbi)**

Ulazia/Loiola **22**
lzagirre/Albercli **21 (Oskarbi)**

Ansola/lazarobaster **22**
Ubera/Pertatber **20 (Oskarbi)**

**Eskubaloia**

Pagoaga Eig. 16 - Zarauz **13 (Kad. nesk.)**
lJnceta Elg. 14 - Arrate **10 (Jub. nesk.)**
Corazonistas **21** - Tecnomeca Elg. **26 (Kad. mut.)**
Corazonistas **31** - Pneumax Elg. **22 (Jub. mut.)**

**Areto Futbola**

Samsung Elg 11 - Laskorain **3 (Nazional B)**

## AGENDA

**Areto Futbola,** Kiroldegian

**Barixakua, 1**
**22:15** Lanbroa - Cocinas Uriarte (1. maila)

**Futbola,** Mintxetan

**Zapalua, 2**
16:30 Pedrusko Zumaiako **(1. erreg.)**
18:15 Elgoibar Union Txiki B **(Jub.)**
**Domekia, 3**
**10:30** Elgoibar - Azkuene **(Inf.)**
**12:00** Elgoibar Antzuota (Neskak)
**16:30** Elgoibar Eibar **(Kad.)**

**Eskubaloia,** Kiroldegian

**Zapatua, 2**
**16:00** Tecnomeca Elg. Arrate (Kad. mut.)
**17:30** Pneurna Elg. Arrate **(Jub. mut.}**

**Saskibaloia,** Kiroldegian

**19:00** Elgoibar S.T. Loyola

cu **pilota,** Ikastolan

**Debarroko Txapelketa**
**Astearlea, 5**
**19:00** Lagunak - Euskaljotas

# Santa Agedako koruak zapatuan eta astelehenean aterako dira kopla

## Etxegina taldekoak kalez-kale ibiliko dira eta Elgoibarko Izarrakoak, baserriz-baserri

*Kandelario eta San Blas Egunen ostean, otsailaren 5ean, dator Santa Ageda Eguna. Egun hori gerturatu ahala, eskean ateratzeko ohitura go Elgoibarren. Asteburuan ateratzen dira batzuk, besteak, berriz, otsailaren 4an, bezperan. Kaleak koplatzen dituzte batzuk eta baserriak besteek. Ageda martiriaren omenez, beroz, izango da koplak entzuteko aukerarik.*



Urain koplari dutela, herriko kaleetan abestu ondoren, Salbea eskainiko diote Errosarioko Anrabbjinari Etregina taldeko korukoek zapatuan.

### Behartsuentzako dirua

Aspaldikoa da Santa Ageda koruak kantuan eta eskean ateratzeko ohitura. Usadio zaharra berritu eta bi talde ateratzen dira gaur egun kopla kantari. Etxegina taldea da bata eta Elgoibarko Izarrakoa, bestea.

Etxegina taldekoak bihar, otsailaren 2an, zapatua, aterako dira. Bolatokiko parkean goizeko 9:00etan lehen makila kolpea eman eta kalez-kale abiatuko dira herriko auzoak koplatuz. Urain izango dute koplari eta ibilbidea Errosario kalean amaituko dute. Bertako Amabirjinari salbea abestu eta Baltasar Elkartean egingo dute bazkaria. Bildutako dirua herriko behartsuentzat izaten da.

**Ikastola eta Herri Eskolako ikasleek ere Santa Agedako koplak abestuko dituzte otsailaren 4an**



### 8 orduz koplatan

Bederatzi urte dira Elgoibarko Izarrak Santa Ageda bezperan baserriz-baserri kopla kantari ateratzeko usadioa berreskuratu zuela. Aurten ere otsailaren 4an, astelehenean, ez da kopla doinurik faltako herriko bailaretan. Meabebasterretxea, Ziarda, Areitio eta Narbaiza arituko dira koplari lanetan eta Baltzola anaiek eta Arantza eta Ekaitzek jarriko dute trikiti doinua. Santa Agedaren omenezko hainbat kopla abestu ostean, baserriko bizilagunak koplatuko dituzte eta limosna eskatu ondoren, jasotakoa eskertuz amaituko da baserri bakoitzeko saioa. 8 ordu luzez baserriz baserri aritu ostean indarrak berritzeko afaria egingo dute San Migelgo elkartean.



8 orduz San Migel, San Pedro, Sallobente eta Urruzuno bailarak koplatuko dituzte astelehenean Elgoibarko Izarrako taldeek.

### Ikasleak kantari

Ikastolako eta Herri Eskolako ikasleak ere Santa Ageda bezperan kantuan aterako dira, herriko kaleetan batzuk, eta Urasandi auzoan besteak. Bi taldeak arratsaldez ibiliko dira.

Kaletar zein baserritarrek Santa Eskean datozenak ongi hartuko dituztelakoan batzuk astean entsaiatzen ibili dira, eta guztiak eztarria zaintzen. Beraz, eskean etorriz gero, jakin, eskatzea libre dela eta baita ez ematea ere, baina norbaitek emandakoa eskertzen badu horiek Santa Eskean datozenak dira. Eup! hotsaren ostean trikiti, pandero eta kopla doinuek hartuko dituzte herriko kale zein baserriak.

## Bernardo Atxagaren "Bambulon anizezlana eskaintho du Txaio produlaioak taldeak

### Otsailaren 3an, domekan, izango da emanaldia Herriko antzokian

Kontinenteko zakurrik azkarrenetakoa omen da Bambulo, eta bere abenturak antzerkian ikusteko aukera izango da Elgoibarren. Otsailaren 3an taularatuko du "Txalo Produkzioak" taldeak [6:30ean Herriko Antzokian. 6 aktorek antzeztuko dituzte arratoi-zakur berezi honen abenturak. Virginia imazek jokatuko du Bamburoren papera eta Loli astoreka, Begoña Bilbao, Itziar Rekalde, Carmelo MuriozeXabier Agirre eta Jose Kruz Gurrutxaga bere inguruan ibiliko diren pertsonaiak izango dira. Emanaldia familia guztiarentzat dago prestatuta. Beraz, ume nahiz gurasoek Bamburoren istorio bambulotarrekin gozatzeko aukera izango dute domeka arratsaldean Herriko Arttzokian.



## "Misqui"-k antolatutako Barricadaren kontzertuan 600 lagun izan ziren

### Bildutako dirua Cuscoko (Peru) behartsuentzat izango da



Joan den ostiralean, urtarrilaren 25ean, Barricada talde ezagunak kontzertua eskaini zuen Elgoibarko Gaztetxean. Sarrerekin bildutako dirua Peruko Cusco hiriko behartsuentzako izango da. Izan ere, Misqui Elkartasun Taldeak antolatutako kontzertua izan zen. 600 lagunek Gaztetxea bete zuten. Barricadako kantariak "Drogas"-ek esan digunez, "oso gustura aritu ginen eta jendeak ere ongi pasa zuela uste dugu, gure helburua bete genuen, ongi pasatzea. Misqui taldeko Gemmarekin dugun harremana dela-eta erabaki genuen kontzertua ematea, eta gainera Cuscora laguntza bidali badaiteke, hobe". Barricadaz gain, Humus eta Special Quest" taldeak ere aritu ziren.


IMEICHOSM
Errosario, 30
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

* IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
* MULTIKOPISTAK
* FOTOKOPIADORAK
* PLANOEN BIRREGILEAK
* ERLOJU INDUSTRIALAK
* MARRAZKETA MATERIALA
* INFORMATIKA
* FAX

Cordon,Vilarchao, c.b.
1D E KC) R A Z 11 C) A.

MOKETAK, KORTX0 BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PiNTURA OROKORRA.

San Rolce , 7 behea. Tel: 943 74 28 74-74 05 70

# agenda




## 1 BARIXAKUA

22:15 ANTZERKIA
"El Uno y el Otro"
Taldea: "Traspasos" produkzioa
Herriko Antzokian




## 2 ZAPATUA

9:00 SANTA ESKEA
Taldea: "Etxegiria"
Irteera: Bolatokian



## 3 DOMEKIA

16:30 ANTZERKIA
"Ilnibulo"
Taldea: Txalo Produkzioak
Herriko Antzokian

## 4 ASTELEHENA

14:30 SANTA ESKEA
Elgoibarko Izarra
Irteera: Plaza Handian



15:30 SANTA ESKEA
Ikastolako haurrak
KALEZ-KALE
Herri Eskola
Urasandin

## 7 EGUENA

15:30 KALEJIRA
Irteera: King Kongen
Antolatzailea: Pilar Ikastetxea

20:00 HITZALDIA
Gaia: Globalizazioa
Hizlaria: Arturo Garcia
Parrokiako lokaletan (Trenbide kaletik sartuta)
Antolatzailea: Parrokiako Misio Taldea

## 8 BARIXAKUA

22:15 IKUSKIZUNA
"Sinuose" taldearen aurkezpena
Antolatzailea: Sinuose Artisten Kolektiboa.Herriko Antzokian
Sarrera: 3 euro

## 1KASKETAK

Helduentzako Heziketa Zentroa (E.P.A)

Elgoibarko Helduentzako Heziketa Zentroak matrikulazio epea zabalik izango du otsailaren 8ra arte. Bertan, alfabetizazio klaseak, Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako graduatua ateratzeko prestaketa edo oinarrizko ikasketak egiteko aukera izango dute pertsona helduek. Izena emateko zentrora jotzea besterik ez daukazue, Pedro Muguruzan, Usetxe kalean, 15:30etik 20:30era bitartean. Informazio gehiagorako, deitu 943 74 08 80 telefonora.

## ERAKIISKETAK



Emakume artisten erakusketa

Haizea Emakume Taldeak erakusketa bat osatu nahi du. Elgoibarko emakume artistekin. Horretarako herriko emakume artistei deialdia zabaldu nahi diete, erakusketan parte hartzeko. Arte-lanak argazki, diapositiba, bideo, CD... formatoetan aurkez daitezke otsailaren 11 edo 15a baino lehen, Kultur Etxean. Informazio gehiagorako, deitu 656 750 160 edo 656 732 768 telefonora.

# zine

KAR 11k1,1111;G1

ELGOIBAR, Herriko Antzokian
"Bandits"
2, zapatua: 19:30-22:15
3, domekia: 19:30-22:15
4, astelehena: 22:15

EIBAR
Unzaga
"Occan's neven"
I. barixakua: 19:30-22:15
2, zapatua: 17:00-19:45-2 1:30
3, domekia: 17:00-19:45-:30
4, astelehena:19:30-22:15
5, martitzena: 19:30-2 1:15
6, eguaztena: 19:30-1:15

"El **Perthin**"
1, harixakua: 19:30-
2. zapatua:19:30-2):15
3. domekia:19:30-22:15
4. astelehena: 19:30-22:1
5, martitzena: 19:311-22:11

"Spy game"
I , barixaktta: 22:30
2. zapalua: 22:30
3, domekia: 19:45
4, astelehena: 19:30
**"Intacto"**
7, Eguena: 20:00 (Zine Kittba)

,. Immaragile
**"Juana la loca"**
1.1)arixakua: 22:00
2, domekia: 16:45-19:30-22:15
3, astelehena: 20:00

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.



## "Bandits"

Zuzendaria: Barry Levinson.
Antzezleak: Bruce Willis, Billy Bob Thornton, Cate Blanchet.
Loe (Bruee willis) kartzelatik ihes egin duen banku atrakatzaile bat da. Teny, bere lagun hipokondriakoarekin egin du ihes eta berriz ere lapurretara buehatzeko asmoa dute. Ahalik eta banketxe gehien lapurtu nahi dituzte Mexikon errettro duin bat izateko asmoz. Legearen bestaldean egotearen zirrara sentitu nahi duen etxeko andre aspertu batek lagunduko die lapurretekin. Errealitatean oinarritutako pelikula da, betiere Estatu Batnetako errealitatea, ordea.

# erretratu zaharra

2002-11-1



ste honetako erretratua duela 60 urte inguru ateratakoa da. San Bartolomeetako Txiki Egunean "feriante" batek atera zien argazkia "Correos"-eko aurrean, Bertan agertzen den lagun koadrila **Iriondo tabernako koadrila** moduan ezaguna da.

Zaldi gainean daudenak, **Jose Bedaio "Maltza" (t)** eta **Agustin Bastida "Katalotza" (t)** dira.

Erdian: **Pako Pefialba (t), Nikomedes Larrafiaga (t), Mateo Mendikute "Azaola" (t)** eta **Seeundino Beristain (t).**

Behean: **Eugenio Egurrola (t), Casiano Iriondo "Sanson" (t), Federico Iriondo "Sanson" (t)** eta **Saturnino Inza (t).**



Santi Mugerza Arrieta

*1991ko otsailaren 2an hil zen*
*19 urte zituela.*

*11.* *URTEURRENA*

*Iragan da denbora,*
*iragan dira urteak*
*txoriek egin dute kantu*
*eta irten dira loreak,*
*baina oraindik*
*gure bihotza tristetzen du*
*zu gurekin ez egoteak.*

*Zure koadrilakoak*


Malape
taberna
berriz ere
Ellfo
zo4 !!
gaurtilc, ostiraletik aurrera


INAUTERIAK
2002
OSTARKU ARGAZKIAK
Santa Ana kalea, 5
Elgoibar - 20870

# Esker mila 50 urte hauetan azaldutako konfidantzagatik

## Ba al dago opel batekin urtea hastea baino modu hoberik?




**ZATOZ**

GUZTIZ **BERR**ITUTAKO

KONTZESIONAPIIOA EZAGUTZEF1A

ASTRA C O UPĒ apartekoaren erakarpena









**Olaso, 25**
**tel: 943 744 012**
**Faxa: 943 743 206**
**e-posta: opElganalsa.com**
**http:wwwopEl.Es**

**Plaza auzoa, z/g MEndaro**
**tel: 943 755 072**

**Otaola, *27* • Eibar**
**tel: 943 700 841**

# ANALSA

**ElgoibarrEn .1500 m -Erakustokia 1500 m .TailErra 1000m .OrdEzkoak Eta osagarriak**